

BERGARA

93. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, urtarrilak 29

HITZARMENA

SINATU DUTE
L. H. ESKOLAK
ETA BERGARAKO
ALTOS
HORNOSEK

ARGAZKIAK


JAVIER AREITIO
ETA PEDRO
MARTIN
ARGAZKILARIEKIN
BERRIKETAN

KIROLAK

MIKEL
URIBESALGO,
ATLETISMOAN
BURU
BELARRI

BEPPE FUMAGALI

MAYCeKO ITALIANOA



ITURKINTZA • GASA • BEROGAILUA



MEDINA

San Lorentzo, 4 ☎ 76 28 07

betaurrekoak
Tania & Mauro

**ALAITU
EZAZU
BEGIRADA
2.550 Pta.**



J. Larrañaga
OPTIKA
MULTIOPTICAS

Tania & Mauro betaurreko berriak
MULTIOPTICASen azkena zure begiak modaz jazteko.
Beren diseinu erakargarri eta kalitatezkoak. Eta
prezioa, harrigarria: 2.550 Pta.

Eta beti J. LARRAÑAGA OPTIKArekin.
Zaloz eta zerorrek froga ezazu

ibargaray 16 BERGARA
J. Carlos Guerra · ARRASATE
M. Barriarán-Erquiza · ORRIZA

MULTIOPTICAS
Beti Zuri Begira

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ELKAR

Arruriaga 1, behea ☎ 76 58 16
BERGARA

- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
 - Termo-enkolatuak
 - Burdineko espiralak
 - Plastikozko espiralak
 - Faszikuloak
- JENDEARENTZAKO FAXA
- PLASTIFIKAZIOA
- PLANOEN KOPIAK

MEMESA



Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

BERRIGARA

Argitaratzailea:
Jardun Elkarte
 Errotalde Jauregia, 20.570
 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97
Babeslea: Bergarako Udala
Laguntzailea:
 Eusko Jauriaritza
Erredakzioa
 Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
 eta Mikel Elkorobereziabar
Maketazioa:
 Eneko Azkarate eta Eduardo
 Mendibil
Publizitatea eta harpidetzak:
 Alex Azkarate eta Eburne
 Arenaza. ☎ 76 03 97
Erredakzio-kontseilua: Ifaki
 Eraña, Gorka Eiorza eta Alex
 Labaien
Kolaboratzaileak: Jose Angel
 Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
 Angel Elkorobereziabar, J. M.
 Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
 Maripi Laskurain, N. Alzelai,
 Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
 Lizarraide, Monika Belastegi, M.
 Elkorobereziabar, Aitziber
 Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
 Sorondo.
Argazki laborategia:
 B. Cantero, M. Leturia, J.A.
 Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
 Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
 Kiñu eta Pol-Pol Mendizale
 Taldea.
Komikia eta marrazkiak: Josu
 Okina eta Antonio Arrillaga
Inprimategia:
 Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)
Banaketa: Txantxangorri Taldea
Copyright:
 BERRIGARA
Tirada: 3.300 ale
Lege gordailua: SS 50/ 91
ISSN: 1130-6599
BERRIGARA ez du bere gain har-
 tzen aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta erizitien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

IKASLEAK

Gaur ostirala Ber-
 garako Ikastetxe Ertai-
 netako ikasleek jai-
 eguna izan dute San
 Juan Bosco edota San-
 to Tomas de Aquino-
 ren omenez. Lanbide
 Heziketa Institutuan
 San Juan Boscoren jaia
 izan da eta, Batxilergo
 Institutua eta Aranzadi
 Ikastolako ikasle er-
 tainek Santo Tomas de
 Aquino ospatu dute.



Lanbide Heziketa
 eta Batxilergo Institu-
 tuetan ekitaldi ugari
 izan dira goizeko 9e-
 tatik arratsaldeko or-
 dubiak inguru bi-
 tartean: kirol probak,
 txokolatada, tortila
 txapelketak... Amai-
 tzeko, ikasleek bazka-

riak izan dituzte herri-
 ko jatetxe ezberdine-
 tan.

Bestalde, Mariaren
 Lagundian ere jaieguna
 izan dute San Juan
 Bosco eta Irakaslearen
 Eguna ospatzeko.
 Guztira, 2.200 bat
 ikasle izan dute jai-
 eguna gaur Bergaran.

Santo Tomas de Aquino eta San Juan Bosco ospatu dute

ITURRI ONETIK

Plazako horma pintatuko da

Bergarako Udaleko Hirigintza Departamentuak
 Udaletxeko obrak inguratzen duen hormaren
 margotzea eskatu dio Mendia Bizirik talde
 ekolojistari. Xabier Gallastegi Hirigintza Batzordeko
 buruaren ustetan, "margotze lanak berehala hasiko
 dira eta Mendia Biziriki eman zaio motibo ekojista
 huts bategatik, polita ikusten genuelako". Badirudi
 Manu Muniategi margolari bergarrarrak burutuko
 duela lana.

ESAN DUTE

"Edozein herri
 txikitik ikusten dira
 museo txikiak, era
 horretako gauzak
 erakusteko, eta
 eskoletako irakasleek
 herriko umeak
 eramaten dituzte
 bertara. Hemen ez da
 nahikoa lantzen arlo
 hori, eta uste dut diru
 gehiegi gastatu gabe
 ere gauza polit eta
 baliagarriak egin
 daitezkeela".

MIREN GOÑI

Eusko Ikaskuntzako
 Antropologia eta
 Etnografia Saileko
 buru
 EGUNKARIA

"Lana egiten dakiten
 profesionalak behar
 ditugu. Realak eta
 Athleticek Zubieta eta
 Lezaman prestatzen
 dituzte beren
 jokalaria.
 Guk Lanbide
 Eskoletan prestatu
 behar ditugu
 etorkizuneko
 langileak".

J. LUIS GARITANO
 ADEGUIko Idazkari
 Ordezkoa
 ADOS? (ETB)



Aldizkari honek
 Eusko Jauriaritzako Kultura eta
 Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitarteko
espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

**EL ULTIMO MOHICANO**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00., 19.30 eta 22.30.

Igandea: 17.00., 19.30. eta 22.15.

Astelehena: 19.30.

**OFFeko MAITASUNA**

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ 1757 urtean girotuta, frantsesek eta ingelesak New Yorkeko estatuaren kontrolaz jabetzeko izandako gorabeherak azaltzen zaizkigu. Bien bitartean, mohikanoen artean hazitako **Daniel Day-Lewis** eta britaniar ofizial baten alabak amodiozko istorio bat biziko dute.

▼▼ Euskarazko filme gutxi heltzen zaizkigu eta ostegunean euskal zinema deiturikoren azken lanetako bat ikusteko aukera izango dugu. Donostian errodatuta, Angela Molina, Fernando Guillen Cuervo eta Patxi Bisquert dira erreparto buruan.

Erakusketak

▼ **Pintura erakusketa.** J. A. Borobiaren lanak ikusgai Nahikarin.

▼ **Argazki erakusketa.** Javier Areitio eta Pedro Martinek herriko kultur eta kirol taldeei 1992an ateratako erretratuen argazkiak ikusgai Kultur Etxean.

Farmaziak▼ **Larunbata 30:**

Puy/Azkoaga (Arrasaten, gaez)

▼ **Igandea 31:** Puy/Español.▼ **Astelehena 1:** Guallar.▼ **Asteartea 2:** Estella.▼ **Asteazkena 3:** Mozos.▼ **Osteguna 4:** Camacho.▼ **Ostirala 5:** Puy.**Ogia**▼ **Igandea 31:** Mizpildi**POL - POL TABERNA**

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

EDEL
tapizdenda

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

Ikuskizunak

▼ **Nire pony txikia.** Hau-
rentzako bideoa larunbatean goi-
zeko 11etan Kultur Etxean.

▼ **Udal Musika Banda.**
Igandean, eguerdiko 12 r'erditan,
Novedades aretoan. Besteak beste,
Wagner, Borodin edota Aresen
piezak eskeiniko dituzte.

Kirolak

▼ Futbola:

• **Bergara-Zumaiako** (pfe-
rente maila). **Igandean** 16.00etan
Agorrosinen.

• **Bergara-Ilintxa** (2. mailako
kadeteak). **Larunbatean** 11etan
Ipintzan.

• **Bergara-Eibartarrak** (infantil
txiki). **Igandean** 10.00etan Ipin-
tzan.

• **Bergara-Eibartarrak** (2.
mailako jubenilak). **Larunbatean**
12.30etan Ipintzan.

▼ Saskibaloia:

• **Bergara-Zuya Sport** (senior
gizonak). **Larunbatean** 18.30etan.

Aukeran

▼▼ **Euskal Jaia** iragarri du
Bergarako gaztetxeak
larunbaterako, hilak 30.
Arratsaldeko 7etan Unai
Iturriaga, Igor Elorza, Beñat
Gaztelurruti eta Unai Esturo
bertsolariak arituko dira.
Ondoren Lanperri eta Miliki
trikitilariak eta gaueko 11tan
Martxoak 31 eta Izurrai
taldeek kontzertua emango
dute.



▼ Eskubaloia:

• **Bergara-Aloña gazte** (kadete
neskak), **larunbatean** 16.00etan.



▼ Futbitoa:

• **Astebukaeran** Kiroldegian.

5

PROFESIONALAK

• **Urionaguena-Galarza**
III.a/Eugi-Beloki (ETBK
zuzenean emango du).

• **Soroa III.a-Oregi/Gofi-**
Urrutia.

• **Gabilondo-Buenetxea /**
Badiola II.a-Garaita.

Larunbatean,
16.30etan Udal
Pelotalekuan.

ZUBIETA
elektragintza

- ✓ **Motoren bobinaketa**
 - ✓ **Era guztietako instalakuntzak**
- Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

ORTZI
ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68

Jaiak eta Gazteria Batzordeari

Aurreko asteko Berrigarar Udaleko "Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria" batzordeak kaleratu zuen gutuna dela eta, Bergarako gazte talde batek badauka zer esanik.

Batzordeak "kabalgatak sortarazten duen ikusminaz baliatuz, beren eritzi politikoak kaleratzen dituztenek ez dira kultur iharduera ezaz protesta egiteko egokienak" esaten du, eta gure ustez, errege bezperako ekintza ez zen manifestazio politikoa izan inola ere. Kalejirarekin, Udaletxeak azkenaldian izandako jokabidea eta jarrera salatu nahi izan zen, "Gaztetxea, Txapa Irratia, txoznak ixtea...". Bestalde, udaletxeak dena bere kontrolpean eduki nahi badu ere, gazteek beraiek erabakiko dute zein momentu den egokia, bere eskaerak edo protestak egiteko.

Batzordeak asmoak planteatzeko eskatzen du. Hori oso ondo dago, baina gero, Udalak interesatzen zaizkion kultur iharduerak bakarrik onartzen ditu. Bestalde, ez dugu egokia ikusten ekitaldi guztiak udaletxetik bideratu beharra. Ala udaletxe gabe ezin ote da jaialdirik edo bestelakorik antolatu?

Gabon jaietako argitxoek, Batzordearen ustez, tradizio kutsua ematen dute. Baina ze tradizio? Noiztik da tradizio gabonetan herria argiz betetzea?, ah, noski, orain europarrak gara.

Eta txoznak zabaltzea ez al da tra-

dizioa gure herrian?

Bestalde, ados bazaudete diru horrekin kultur iharduera pila bat antolatu daitzkeela, ea hurrengo urtean argi gutxiago eta ekitaldi gehiago dagoen.

Pintada, kartel eta pankartak kentzen diru asko gastatzen dela ere aipatzen duzue. Gure ustez herri garbi baten aitzakiarekin, herriko talde askoren komunikatzeko era bakarra isildu nahi du udalak. Talde horiek, beren iritzia kaleratzeko eta antolatutako ekintzen berri emateko ez dute beste aukerarik. Eta gainera Udalak, dena bere kontrolpean eduki nahi duenez, tratu preferentziala eman die talde batzuei muralak egiteko baimena emanaz, beste batzu baztertzen dituen bitartean.

Batzordea irekia izatea ondo ikusten dugu, baina ez al dago batzordetik pasa gabe ezer antolatzeko aukerarik? Antolatzen den guztiak taldearen firma izan behar al du?

Gazte talde bat

N. A. N.: 72. 445. 906-T.

S. O. S. Berrigara

Berrigararen ohizko irakurle gisa, al-dizkariaren 91. aleak erabat moskeatu nau. Kabalgatarekin batera hainbat gaztek burutu zuten protesta, kalejirak eta honek sortu dituen zalaparta eta eztabaidak, ez dute inolako aipamenik izan.

Niretzat hau ez da borondaterik gabe egindako akats periodistiko huts bat. Ho-

nen atzean badaude intenzionalitate osoz, honelako jokaera informatiboak bultzatzen dituzten arduradunak eta arrazoiak.

Berrigara Bergarako herriaren bizitzaren ispilu izan beharko litzateke. Ahalik eta modu zabal eta zorrotzean. Ez bakarrik "Bergara ofizialaren" ispilu. Udaletxeko lau paretan itzaletik datozen berriak nagusiki jasotzen duen aldizkari bat baino, beste zerbait eta zerbait zabalago izan beharko litzateke. "Bergara ofizioso" bat ere badago, udaletxetik kanpo bizi dena, eta tratamendu jatorragoa merezi du.

Orain arteko bidetik, Berrigara udaletxearen boletín ofizial bihurtarazi dezakete. Eta horrek agian euskarari lagunduko lioke, baina informazio plurala jasotzeko eta diru publikoa erdian denean gehiago, eskubidea zapalduko luke. Euskararen sustapena ezin daiteke bultzatu, bergarar batzuk informatiboki marjinatuz.

Berrigarak eskubide hori ere bultzatu beharko luke, nortasun berri bat bilatuz. Eztabaidak piztuz, Bergarako konfliktuoei dimensio publiko bat emanaz eta tratamendu sakon eta zorrotzagoaz. Hor daude Elusu eta udaletxearen arteko mobidak, Gaztetxea eta obispoaren artekoak, kultura mailako defizientziak, Txapa Irratia eta udaletxeak dutena..., eta badute Berrigararri islada serio bat izateko garrantzia.

Miguel Angel Zubimendi

Tiira ba!

Josu Okina



L. H. Eskolak eta Bergarako Altos Hornosek kolaborazio hitzarmena sinatu dute

Enpresako langileek klaseak hartuko dituzte L. H. Eskolan

Ostegunean sinatu zen Lanbide Hezkuntza Eskolako areto nagusian Bergarako Altos Hornos eta Lanbide Hezkuntza Eskolaren arteko elkarlanerako hitzarmena.



Jose Mari Larrañaga Lanbide Hezkuntza Eskolako zuzendariak eta Miguel Urteaga Bergarako Altos Hornosen izenean izenpetu zuten hitzarmena. Ekitaldian, aipatutakoez gain, Victoriano Gallastegi Alkatea, Guillermo Etxenike Gipuzkoako Hazienda eta Ekonomia Diputatu Ordea eta Alfredo Gonzalez Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkarria, izan ziren besteak beste.

Jose Mari Larrañaga L. H. Eskolako zuzendariak, hitzarmenaren garrantzia azpimarratu zuen: *"alde batetik Altos Hornosek bere langileak gure eskolan birziklatu ahal izango dituelako eta L. H. Eskolako ikasleek, bestalde, Altos Hornosen praktikak egiteko aukera izango dutelako"*. Hitzarmena Altos Hornoseko langileei esker sinatutakoa gehitu zuen Larrañagak: *"eurak izan baitira ideiarene bultzatzaileak. Horregatik eskertu nahi diet egindako lana"*. Eskerrak eman zien baita ere, Altos Hornoseko eta L. H. Eskolako zuzendariari, Aristrain taldeari orokorrean, Gipuzkoako Diputazioari, Jaurlaritzari,

Bergarako Udalari eta Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzari.

Miguel Urteagak, Altos Hornoseko langileen ideia txalotu zuen eta enpresako langileak birziklatzeko lehen ikastaroetara apuntatzeko izena emateko epea jadanik zabalik dagoela adierazi zuen.

Guillermo Etxenike Hazienda eta Ekonomia Diputatu Ordeak, Euskal Herriaren etorkizun ekonomikoaren alde apostu egiten duen hitzarmena zela esan zuen eta horregatik oso garrantzitsua zela adierazi zuen. Etorkizuna oparoa izateko baldintza batzuk ezinbestekoak zirela gehitu zuen, hala nola, Estatutuen estabilitatea, instituzioen estabilitatea beharrezkoak diren inbertsioak egin daitezzen, elkarlanerako kultura eta

indarkeria desagertzea.

Victoriano Gallastegi alkateak, azkenik, herriko beste enpresei dei bat luzatu zien Altos Hornosek eta L. H. Eskolak sinatutako hitzarmenarekin bat egin zezaten: *"aktuzio eremua zabalagoa izan dadin"*. Instituzioak ere orain arte bezala kolaboratzen jarraitzera gonbidatu zituen.

Langileak eskolara

Atzo sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Altos Hornoseko langileek, L. H. Eskolak emandako ikastaroetan parte hartu ahal izango dute. Langile asko, koalifikatu gabeak, *"Europa mailan konpetitibo izateko presaturatu ahal izango dira"*, eskolako irakasle batek adierazi zigunez. Lanbide Heziketa eskolak, beraz,

pertsonal kualifikatua (irakasleak) eta tresneria jarriko ditu.

Horren truke, Altos Hornosek diru kopuru bat emango du eta diru hori L. H. Eskolan inbertituko da, egunetik-egunera tresneria aldatu eta hobetzen joateko.

Ikasleak lanera

Bestalde, hitzarmenak esaten duenaren arabera, L. H. Eskolako ikasleek Altos Hornosen lan egiteko aukera izango dute. Uda partean, esate baterako, hiru hilabetez lan egin ahal izango dute, ikasketak egin ahala lan mundua gertu-gertutik ezagutzen joateko.

Hitz bitan esanda, teoria eta praktika, biak, behar diren moduan ikasteko aukera izango dute ikasleek.

□ "Y" trenbidea

Gasteizko eta Madrileko gobernua akordio batetara iritsi berri dira Abiadura Haundiko Trenaren euskal sarearen ("Y" moduan ezagutzen duguna), proiektua 1:1.000 eskalan egiteko. Egitasmoa bi urteren barruan burutu eta 1995. erako, obrak hasiko litzateke. BERRIGARAK (40. zenbakia, 1991-11-8) aurreratu zuen bezala, "Y" izenaz ezagutzen den Abiadura Haundiko Trenaren sareak bi ardatz nagusi izango ditu: Gasteiz-Irun eta Bilbo-Elorrio. Bergaratik pasatuko da eta Angiozar inguruan hiru tunel eraikiko dira: Udalaitezkoa, Udalakoa eta Loiti-Gainaren azpitik doana. Lanek gutxienez 12 urte iraungo dute eta 320.000 milioi pzta. tako aurrekontua dute.



Oztopoak ezabatu

Urritik martxan dago Deba Garaiko Mankomunitateak martxan jarritako elbarrituentzako euro-taxi zerbitzua. Lehen autobusez egiten zen zerbitzu hau orain bereziki gertatutako furgoneta baten bidez egiten da, Bergaran bi elbarrituk erabiltzen dutelarik. Udalak azkeneko Plenon onartu zuenez, 1.400.000 pta. inguru ordaindu beharko du eta ASPACEK berriz, kosto osoaren (6.400.000 pta. inguru) % 10a.

Bestalde, Alvaro Esparza Enplegu eta Ongizate Batzordeko ardura-

dunak jakitera eman digunez, *"orain gure asmoa gutxitu fisikoek gure herrian ibiltzeko dituzten oztopo arkitektonikak ezabatzea litzateke"*. Zentzu horretan, Begoña Larrabe soziologoak burutu du dagoeneko gutxituek gure herriko hainbat tokitara iristeko dituzten arazoei buruzko ikerketa. Alvaro Esparzaren esanetan, *"aurten obrei buruzko anteproiektu bat egitea nahi dugu, datorren urtean Hirigintza Batzordearen baimena eta Diputazioaren laguntzaz obrei aurre egiteko"*.

□ Atzerapena

Atzo osteguna egin beharreko etxebizitza sozialen zozketa publikoa gutxienez 15 egunetan atzeratzea erabaki du Udaleko Hirigintza Batzordeak. Arrazoi nagusia etxebizitza guztiei trastero bat gehitzearena izan da, ziren etxebizitzak baino 12 trastero gutxiago aurreikusten bait ziren hasieran. Zozketatuko diren 63 etxebizitzetarako (5 Udalaren esku geratuko dira) 265 eskakizun jaso dira.

□ Argazkia

Pol-Pol Argazki Taldeak eta Bergarako Udalak argazki ikastaroa antolatu dute otsailaren 15etik 26ra bitartean (arratsaldeko 7.15etatik 9etara). Klaseak Kultur Etxean izango dira eta interesatuek bertako liburutegian eman dezakete izena, aurrez 2.500 pta. ordainduz. Plaza mugatuak dira.

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

ETXAGI

Jatetxea


Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



Txapa Irratia kolokan

Txapa Irratiak Zabaltegi dorrepean duen lokala utzi beharko du otsailaren 27an. Egun horretan betetzen dira bost urte Udalak Txapa Irratiari lokala laga zionetik eta kontratua bost urtetarako zenez, lokala utzi eta ez zaie berriztuko.

Txapa Irratikoekin zein herriko beste talde batzuekin orain dela urte batzuk sinatutako kontratuak, legearen aldetik ondo eginak ez daudela adierazi diote Udal agintariak BERRIGARARI. Horrela, bada, kontratu horriek bukatzen direnean,

berriz ez berrizteko erabakia hartu du Udalak.

Bestalde, Udalaren eta Txapa Irratiaren arteko harremanak ez dira ongiak, batez ere Orain dela bi hilabete inguru emisoratik alkateraen kontra egindako irainen ondoren.

Azken egun hauetan Udal agintariak eta Txapa Irratiko ordezkariak bileretan izan dira, Txapa Irratiko estatutuetan egin daitezkeen aldaketan inguruan hitzegiten.

Bukatzeko, aipatu dezagun, Udal Irrati bat jartzeko biabildadea aztertzen ari dela Udala.

Txinpartak

✓ **Udal Musika Bandak** kontzertua emango du igandean, hilak 31, eguerdiko 12 t'erdietan Novedades aretoan.

✓ **Udaleko Jai Batzordeak** Aratuzterako eta eta Pentekoste jaietarako antolatutako kartel lehiaketarako lanak aurkezteko epea astelehenean, otsailaren 1ean amaituko da.

✓ **Insersoak** zenbait balneariotan egonaldiak igartzeko jubilatuentzat martxan jarritako programan parte hartzeko interesa dutenek oraindik zabalik dute izena emateko epea.

✓ **Pello Alberdik** zuzendutako margo ikastaroa antolatu du Elgetako Udaleko Kultura Batzordeak 10 urtetik gorakoentzat. 30 orduko ikastaroa otsaileko erdi aldera hasiko da eta izena emateko epea otsailaren 6ra arte zabalik Udaletxean.

✓ **Santa Ageda** eskean irtengo dira Antzuolako Dantza Taldekoak datorren ostegunean, otsailak 4. Aurten batuko den dirua dantza taldea berarentzat izango da, jantziak egiteko hain zuzen ere.

✓ **Nire pony txikia** haurrentzako bideoa emango da larunbatean, hilak 30, goizeko 11etan Kultur Etxeko haur liburutegian.

Iturkintz Berri

Amillaga 1
(B pabilola)
BERGARA

INSTALAZIOAK:

Iturkintza
Berogintza
Gasa

☎ 76 28 04

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

KIZKUR




Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Jabier Areitio eta Pedro Martin argazkilariekin

"Ez genuen espero Bergaran hainbeste talde egotea"

Jabier Areitio eta Pedro Martinek herriko kultur eta kirol taldeei buruzko argazki erakusketa prestatu dute Kultur Etxean. Buruhauste ugari eman dien lana baina orain, amaitutakoan, guztiek, eta Berrigara tartean (Urtekaria 92an esaterako), eskertuko dutena.



- Zela bururatu zitzaizuen horrelako lana egitea?

- Pedron ideia izan zen. Asier Madinabeitiak komentatu zion Xamatzten argazki album bat gertatzeko, kanpora joaten zirenean ez zutelako zer erakutsi. Hirurok elkartu ginen eta era artistikoan egitea komentatzen hasi ginen. Hortik hasi eta gero, talde guztiekin, era artistikoan egitea posible ez zela ohartu ginen.

- **Eta zein litzateke lan horren helburu nagusia, Pedro?**

- Ba azaltzea zer momentu dagoen Bergaran kirol eta kultur mailan.

Benetan jende asko dabil talde ezberdinetan afizioz lan egiten duena eta askotan ez dugu lan hori eskertzen. Lan hori plazaratzearen beharra ikusten genuen.

- **Taldeek ez dute beren argazkiak izateko ohiturarik...**

- Ez. Gero jendeari gustatzen zaio eta benetan buruhauste ugari eman diegu talde askori. Talde haundietan erropak jantzi eragitea ez da bate-re erreza eta alde horretatik eskerrak eman behar dizkiegu talde arduradunei.

- **Zenbat denbora**

eman duzue lan hau burutzen?

- 1991eko abenduko Gabonetako Kontzertuan ekin genion eta orain gutxi amaitu. Hala ere, tartean, denbora pila galdu dugu. Batez ere astebukaerak eta jai-egunak aprobetxatu ditugu.

- **Eta espero al zenuen hainbeste talde izatea?**

- Ezta antzik ere. Kirol talde ezberdinetan kategoria diferenteak daude eta amaigabeko kontua izan da, Musika Eskolan ere berdin..., etab. Hala ere, oraindik jendea falta da erakusketa honetan

eta espero dugu Udalaren esku geratuko den artxi-bo hori lehen bait lehen osatzea.

- **Anekdotaren bat izango duzue...**

- Ba gogoratzen dut (Jabier) Musika Eskolako talde batean konposizio aldetik kristonak egin behar izan nituela. Enfokatzen hasterakoan konposizio arraroa ikusten nuen eta berriz aldatetakoak: zu hona, beste hori horra... eta azkenean iriten nahi ez zuten hiru mutiko ziren...

- **Aurrera begira beste asmoren bat al duzue?**

- Nik (Jabier) badaukat aspalditik Bergarako baserriei buruzko erakusketa bat antolatzeko asmoa. Hasi nintzen lan hori egiten baina, guztira 353 baserri zenbatu nituen eta gustatuko litzaidake horretan jarritzea, baserri giroa plasmatezea. Baina orain zaila ikusten dut, giro hori galduz doalako.

Baita herriko monumentu, etxe eta eskudo inportantei buruzko lan bat interesgarria litzateke, bide batez, informazio asko jasotzen delako.

SURPE
Taberna
 Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
 ANTZUOLA

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
 D. Irola, 3 - Tlf. 761235
 Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
 BERGARA

LARREA
TABERNA
 Kale Barren, 17
 ANTZUOLA

EGOITZA

Bergarako alargunen elkarte

Sorrera

Bergarako alargunen elkarte honen ideia, lehen lokal hauetan zegoen "Aitonak" elkarte lokal berrira pasa zenean sortu zen. Garai hartan, alargun batzuk elkartu eta ideia aurrera eramateko lanean hasi ziren. Baita egin ere. 1978.eko Abenduaren 8an ireki zituen Egoitza elkarteak bere ateak. Proiektua aurrera eramateko bergaratar eta aurrezki kutxa batzuren laguntza izan zuten. Elkarrearen sorreraren garai haietan 50 bazkide ziren. Gaur egun 80 izatera iritsi dira.

Bertako bazkideak azaldu ziguten bezala, elkarte honek badu bere filosofia ere: alde batetik, ahal den neurrian behintzat, herriko ekintza kulturaletan laguntzekoa. Bestetik berriz, alargunak elkartu, eta beraien arte-

an laguntasuna ematekoa.

Elkarte honetako bazkide gehienak badute afizio gogor bat: "briska"n jokatzea. Hor aritzen dira arratsaldetan kontuak kontatu, kartetan jokatu eta noizean behin meriendatxoren bat ere eginaz.

Ekintzak

Elkarte honek ere jartzen du bere laguntasuna herriarentzat. Honela, nahiz eta aurten horrela izan ez den, urte askotan



Argazkian elkarteko alargun batzuk kartetan jolasten hasi baino lehen

zehar hemen gertatu izan da "Bizar Zuri", Erregetako kabalgata eta baita San Martinetako tanborrada ere.

Horretaz aparte, sukaldaritzako sei bat ikastaro, luntxak... eskeini

izan dira Egoitza elkartearen.


Beraiek ere badute elkartearen eguna. Honela, urtero, abenduak 8an bazkari bat izaten dute bazkide guztientzako.

Baina kexuak ere badituzte. Beharbada kokaturik dagoen lekuarengatik edo, hainbat trastada egiten dizkiete. Sarri izaten dira tinbre jotzeko, atea erre nahi izatea, kristal apurtzeko eta horrelakoak.

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1978ko abenduaren 8an.
BAZKIDEAK: 80.
HELBIDEA: Seminarioko patioa
PRESIDENTEA: Nieves Beistegi.
ELKARTEAREN EGUNA: Abenduak 8.
URTEKO KUOTA: 2.500 pzt.

Ainboa Lete



PINTURAS BERGARA, S.L.

Arane Erreka, 32 behea. Tfnoa eta Faxe: 76 11 40
BERGARA

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK
- Etab...

Siaska

Dena zure haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
 astelehenetik ostiralera

San Lorenzo 25, BERGARA

Beppe Fumagali

CANDY taldeko gestio arduradunarekin

"Aurten labadora berria aterako dugu, MAYCeri bultzakada emanetz"

Beppe Fumagali Candy taldeko gestio arduraduna da eta Maycek taldean sartzeko egindako pausu guztiak bere eskuetatik pasa dira. 30 urteko italiar honek elkarrizketan zehar argi utzi digu 93a Maycentzat urte zaila izango dela, baina lanarekin eta proiektu berriekin 93ko desafioaren aurrean garaile atera nahi du.



- Zer da Candy?
- Candy elektrodo-
mestikoen alorrean lan egiten duen talde bat da. Arlo horretan dauka produkzioaren %95a. Aurten 100 mila miloi pzta faktu-

ratu ditugu eta 5 mila langile inguru ditugu. Candy 1945ean Italian sortu zen, baina Europa osoan ditu filialak. Ingalaterran *Kelvinatore* enpresa daukagu, Frantzia *Rosier* erosi

genuen eta hemen Mayc erosi dugu. Gero Ingalaterran hozkailu gehien saltzen dituen enpresan, *Lec*-en, partaidetza minoritarioa daukagu. Italian ere badugu beste filial

bat, *Cerovate*, marka honenkin sukalde mundua hartzen dugu. Estatuan Bartzelonan ere badaukagu beste filial bat, *Candy Iberica* deritzona.

- Zergatik erosi duzue Mayc?

- Mayc-ek *Otsein* markaren bitartez Espainian labadora alorrean merkatu zabala du, Mayc-ek goitik kargatzeko labadorak egiten ditu eta Candyk aurretik kargatzekoak egiten dituenez, bi enpresen indarrak batuz, Espainiako garbigen merkatuan Candyren presentzia askoz osatua goa da. Italian karga frontaleko labadorak egiten ditugu eta goitik kargatzekoak egiteko diru eta transformazio tekniko izugarriak eskatzen zizkigun, baina Mayc erosi bi teknikak menperatzen ditugu.

- Ze arazo izan dituzue erosteko orduan?

- Lehen pausua, enpresa erosteara, erraza eta azkarra izan zen. Baina enpresaren berregituraketa egin beharra izan dugu, eta hau ere oso azkar egin dugu. Kontuan euki behar da juridikoki enpresa 92ko otsailean bateratu zela eta gaur egun berregituraketa prozesua amaitua dagoela.

Maycen aldaketa

- Ze aldaketa egin duzue Maycen?

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

- Gure lehen pausua muntaia katearen berregituraketa izan da, gure enpresaren barruan horretan behar direlako langile gehien, lehen bi errelebotan aritzen ginen lanean eta orain muntaia errelebo bakar batean egiten dugu, baina lehengo produkzioa mantenduz eta hobetuz.

- Aldaketa hauen aurrean, ze erantzun izan dute langileek?

- Hemen bi jarrera desberdin izan ditugu. Enpresako zuzendariekin ez da egon arazorik, transformazioan denek lagundu dute eta. Normala denez, langileen artean beste arazobatzu izan ditugu, orain arte zegoen produkzio sistema aldatzean langile batzuek sobran zeuden eta beraiekin eztabaida luzeak izan ondoren, Diputazioako lan delegatuaren laguntzaz, eztabaida hauen 92aren bukaeran amaitu dira. Langileei bi irtenbide eman diegu, lehena indemnizazio bat ordaindu eta lantegia uztea eta bigarrena lan erregulazioa. Azkenik langileek irtenbidea onartu dute eta aspektu hau konpondu dago.

- Denok dakigu euskal enpresentzat aurtengo urtea ez dela erraza izango. Nola ikusten duzu Candyren etorkizuna?

- Nik uste dut 1993 urtea Candyrentzat nahiko



ona izango dela. Ekonomiaren egoera orokorra txarra den arren, Europako ekialdean merkatu berriak zabaldu dira eta gure asmoa Europako estatu guztietan egotea da. Baina Otseinek arazo bat du, bere merkatua oso kontzentratua dago, Espainia eta Frantziara mugatua dago. 1993an merkatu honetan zailtasun haundiak izango dira eta produktua hobetzeko lan gogorra egiten ari garen arren edozein arazo espero dugu. 1993ko bukerarako labadora berria aterako dugu eta honekin espero dugu Maycek indar eta aurrerakada handiagoa izango duela.

Legatza nahiago spaghetti baino

- Ezagutzen zenuen Bergara?

- Ez, baina asko harritsu nau, hemengo eguraldia eta bizimodua mendi girokoa da, baina gero kilometro gutxira itsasoa dago eta hori asko gustatu zait. Gainera hemen arrain asko jaten da eta hau niretzat oso bitxia da. Gainera hemengo sukaldaritzaren oso ona da eta legatza dagoen lekuan spaghetti sobran dago.

- Nolako da zu bezalako goi enpresari baten egun normal bat?

- Garrantzitsuena bidaiatzeko gogoia izatea

da. Gure enpresak ia Europa osoan ditu filialak eta beti alde batetik bestera ibiltzen naiz. Bidaiatzeak alde onak eta txarrak ditu, nik emaztea eta bi seme ditut eta leku asko ezagutzen ditudan arren, honek nire familiarekin egoteko denbora kentzen dit. Esango dizut urtean zehar 6 hilabete etxean eta beste 6 kanporean pasatzen ditudala.

-Langile italiarren eta euskaldunen artean, ba al dago desberdintasunik?

- Ez, esango nuke ez dagoela ezberdintasun nabaririk. Hemengo jendea oso langilea da eta han ere berdina dira.

"Otseinek arazo bat du, bere merkatua oso kontzentratua dagoela"

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

SOLOZABAL AUTOESKOLA

TRANSPORTISTA IKASTAROA 1993

- Merkantzia eta bidaiarien naziobarneko eta nazioarteko titulua eta agentzia
- Interesatuek jarritako ordutegia. Asteburuak
- Kamioidun eta garraiolarien lanbide heziketarako eskola espezialdua

EDOZER GAUZA GIDATZEN IKAS EZAZU

Toribio Etxeberria, 5 EIBAR ☎ 70 32 84

Etxezarreta, 15 ORDIZIA ☎ 16 12 21

FS
oto sistema

APPÉnit

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**ETXE-
-AUNDI**

*Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak*


Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**TOKI-EDER
Taberna**

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

Amodiozko kartarik idatzi al duzu inoiz?



Alberto Molinero
21 urte, ikaslea

Ez, kartak ere gutxi idazten ditut eta. Ez zait batere gustatzen kartak bidaltzea.



Alazne Pardina
24 urte, langilea

Nahiz eta nahi izan egia esan ez dut sekula idatzi, oso txarra naiz.



Maria Jesus San Sebastian
38 urte, etxekoandrea

Behin ere ez. Ba beharbada gizona bertakoa nuelako eta ez nuen horren beharrik izan.



Iosu Unamuno
22 urte, ikaslea

Ez dut idazten normalean baina noizean behin bidali izan dut.

MARKIEGI Automobilak

**Automobil eta kamioien
karrozeria eta mekanika**

Leizeaga, 1 (San Lorentzo pol / ind)
☎ 76 35 09 BERGARA



BELENGUA

Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

**AGENTZIA:
J. ELKORO**

Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA


ZURICH TALDEA ASEGURUAK

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29



Ave, vergarani te salutant!

"Y vasca" delako trenbide proiektua noizbait gauzaten bada (ikus sinesteko), Bergararik pasako da berriz ere txu txu supersonikoa. Nahiz eta ia ahaztuta izan, "goiko estazioko" trenaren "monoa" daukagu askok. Aspaldi galdu genuen gure herrian tren zerbitzua eta orain, hitz egiten ari denean "Y vasca"ri buruz, nolabaiteko poztasunak betetzen gaitu, batez ere berebilei gorrotoa diegunoi.

Proiektua ehundaka mila milioiko inbertsioa eskatzen du, eta gauzak dauden bezala, mendiak mugitzen duen fedea izatea ere bai.

Dena den itxaropena galtzen badugu, eta galtzeko zorian egoteko arrazoi ugari daude, bost axola "Y vasca" eta beste hainbeste proiektu liluragarriak. Bitartean euskal "ultratu txu"arekin amets egin dezagun: CAFeko teknologiaren bidez Euskal Herriko hirietara ordu erdian baino lehenago iritsiko gara, gure herria aurrerakuntza dezente irabaziko du eta berriz ere bailarako orinala izan beharrean, nazioaren bidegurutzea berreskuratuko dugu. Ave, vergarani te salutant!

Iñigo Urrutia



"Botikazoa"?

Ba al dakite Berrigararen irakurleek Seguritate Sozialaren dirulaguntza duten botikek sanitate gastu osoaren bostena daramatela? Pentsiodunen ugaltzea eta botikek zentzu estuan hartuta jasan duten igoera dira horren arrazoiak.

Onartutako Errege Dekretu horren helburua igoera hori geraraztea da. Baina berrikuntzaren muina zera da: salgai dauden botiken zerrenda urtero berrikustea, eraginkortasun terapeutiko berdina izanik merkeenak direnak izango dutelarik dirulaguntza.

Ondorioak ez badituzte ez gaisotasun luzekoek, eta ez pentsiodunek jasan behar, zein da kexu?

Zuek, ez dakit, baina ni ez nago, nire soldatarekin nire auzokoaren argaltzeko botika edo bankariak ez burusoiltzeko erabiltzen duena ordaintzeko prest, batez ere giza arazo eta gaisotasun askoz larriagoak egonik.

Besterik da, laborategi farmazeutikoak, logikoa denez, neurri horien aurka aritzea. Bizibidea da. Ez dezagun protestarik egin, behingoz, zerbait ondo egin denean.

Marta Moral

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 5

☎ 76 10 57

BERGARA

**JOSE
LUIS**

eta

MIKEL

URTEAGA, 6

Besaulki eta
fresiloen
konponketa
eta
tapizaketa.
Etxebarruen
dekorazioa

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

Beheko Taberna

*Menestra eta konejua
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

BERGARA Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA ☎ 76 12 31

Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80
☎ 76 06 37

BOLINTXO


Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

JOSEFINA


- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Espalola 4, ☎ 76 35 38



☐ 32 tonelada airean

Pasa den astean argazkian ikus daitekeen **300 tonelada** inguruko gruak **Lakor** enpresan makina bat teilatutik sartzeko lanetan lagundu zuen. Usabiaga enpresako grua hori Estatu guztiko haundienetarikoa omen da eta ikusgarria denik ere ezin zaio ukatu. Indarra duenik ere ez: 40 metro inguruko alturan 32 toneladako makina eraman zuen. leuuuuup!!



☐ Maketa berria

La Duda taldearen bigarren maketa kaleratu du **Fran Iturbe** 28 urteko bergarar pop musikari trebeak, letrak izan ezik, maketa osoa landuz.

Koldo Lizarralde, orain dela hilabete batzuk utzi zuen taldea. Franek, beraz, bakarka jarraitzen du. Horrez gain, Serafin Zubiriren taldean kitarra joko du aurrerantzean.

BERGARESA MARMOLERIA PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte 8, ☎ 76 11 99 / 76 14 47
Faxa: 76 04 77 BERGARA

PELI NARBAIZA IBARZABAL

Agentea Bergaran



Mutua General de Seguros
Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57




□ **Orfeoiko zuzendari berria**

David Azurza 24 urteko tolosarra dugu Bergarako Orfeoiko zuzendari berria. Davidek postua utzi nahi izan duen **Cristina Larrañaga** orainarteko zuzendaria ordezkatu du eta asteartean bertan bere lehen entsaiua zuzendu zuen Davidek. Arte Ederretan (berriztatze espezialitatean) lizentziatuta dago Leioako Fakultatean eta **Tolosako Hodeiertz** abesbatzan abesteaz gain, talde horretako gazteak zuzentzen ditu. Ongietorri David!!

□ **Telebistako izarra**

Saur egun sukaldariak telebistako izarrik ditugu eta **Koldo Lasa** bergararra ere bide horretatik doa. ETBko bigarren katean emititzen hasi den "**Pan y mantel**" saioan ikusi ahal izan genuen igandean Koldo. Bertan, Bizkaia, Araba, Bazarra eta Gipuzkoako sukaldari bana txandatuz joango dira igandero eta Koldok Gipuzkoa ordezkatu du. Pasa den igandean txangurroa labean pertatu bazuen, bere bi hurrengo egerralditan legatza kokotxa eta almejekin eta intxaursaltsa ondo pertatzearen sekretuak kontatuko ditugu kamara aurrean. Adi egon!



Zertan dibardute ba?

MIREN GOÑI



Joan den larunbatean Sestaon egindako batzarrean jadanik 40 bat urtetan Bergaran bizi den 66 urteko tolosar hau Eusko Ikaskuntzako Antropologia eta Etnografia Saileko presidente izendatu zuten.

ABDON JUARISTI



Berrogeitalau urteko bergarar margolari honek Madrilera Galeria Infantas (Infantas kaleko 19. zenbakian) Arte Aretoan margo erakusketa ikusgai izango du urtarrilaren 29tik otsailaren 20ra arte.

LILURA
EDERTZE
INSTITUTUA
Bidekurutzeta, 7
☎ 76 31 71
BERGARA

HARATEGIA - URDAITEGIA
Sebastian Imaz
Bildotsa, txahala eta
oilazkoak
Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

JULIA
Frutadenda
Matxlategi 4, behea
BERGARA

Umore giroan

Biarrera jua n e z

Plaentxia inguruan bizi zan Urlixa. Itxura danez, biarreko gogo gitxikua. Edozer aitzeki artu eta etxian geratzen zan edo lagun artian jokuan. Beñ etxeuak esan zetsen:

- I, txotxo, biarrera noiz jua n biar dok?

Eta Urlixak:

- Baiñan zuek eztakizue ni denpora gitxixan bizitzeko jaixo naizela eta betirako iltzeko, eta biarrera bi-altzea nai nozue?

Beste beñ, orrela "oporretan" zegoala, bere tallarreko kontramai-uakin ikusi da, eta onek:

i, baiña, noiz ator biarrera?

Eta Urlixak:

- Ara, zuek eñ biar dozuena dok tallar barruan doazenak jubilau, eta kanpuan gagozenei bakian itxi.

Andik apur batera, ikusi da kalian ugezabakin.

- Noiz ator biarrera?

Urlixak:

- Etxuek esaten ba gure tallarrak ainbeste milloi balio ditxuala?. Eñ zeinkien gauzarik onena auxe dok: orrek tallarreko danen artian partidu, eta danok ondo biziko gaitxuk.

Azken batean, gure Urlixari "gaxo luzearen" oporrak emon zetsen. Etegoan beste erremedixorik.

Pedro Zelaia



Bideberri gaur egun

ORAIN DELA...

Bide berria beribillentzat

Udaletxearen aginduz, igandetan, Ortuibar aldetik iriki da bide berria beribillentzat, Bergarako kaleak estuak izanik egoera luzeak egiten zituzten onen erruz.

Egitan, bidea ez da oso atsegina, baiñan zerbait da, orain beintzat lasai ibil leiteke igande gabeko txikiteoan ospelak eta kalloak zapaltzeko beldur gabe eta beribillak aixa erraz igarotzen dira bere bidean.

Norbaitekin argi izpi bat izan du. Geuk agenduko bagendu, goikoak eta beeko aldekoak toki beretik sartuko genituzke, ia bein erabakitzen dan Bergarako buru-auste au.

Zeruko Argia. MENDIKOI.
1973-1-21.

Elgoibarren Bergarako atletak nagusi

Ego-Toki elkarteak antolatuta, joan zen igandean Elgoibarren izan ziren karreren artean, herriko atleta jubenilek beren kategoriako marka ondu zuten. Balentin Gantxegik irabazi zuen Gipuzkoako txapelketa eta bere ondoren ere beste bergarar bat izan genuen, Francisco Murgotio. Eta bai bosgarren postua (Sanzek lortu zuena) eta taldekako garaipena ere bergararrentzat izan ziren.

La Voz. J. L. Bikuña.
1968-1-24.

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34


TAPIZERIAK
MOKETAK
ALFOMBRAK

GASTON Y DANIELA

Kruz Gallastegi, 9
☎ 76 07 37

CARETOS


José Antonio Borobia




NAHIKARI

Taberna

Mendiak, 20 BERGARA ☎ 76 5771



BELAITZ MARZANEK jaso du aste honetan ZUBIKUA JANTZIDENDAK emandako saria.



zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5

BERGARA ☎ 76 20 21

Hurrengo Galde Debaldeko saria
ZUMELAGA JATETXEAk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Gaur egun normala egiten zaigu igerilekuetara joan eta bainu bat hartzea, izan ere aspalditxo egin ziren Bergarako Igerileku Munizipalak, garai hartan inguruko lehenak izanda beste herrietako jende dexentek ere bertan ikasi zuelarik igerian.

Aste honetako galdera hauxe duzue:

Noiz inauguratu zituzten Igerilekuak eta nor zen orduan Bergarako alkate?



_____ izena

_____ abizena

_____ telefonoa


OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



Zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

BELAITZ MARZAN

Barrenkaletik Ibargarai kalera joateko hiru aukera ditugu: R.M. Lili kalea, Ikerleku kalea eta garai bateko Galarreta zapatadenda zegoen lekutik abiatzen den horma arteko kale-bidea, eta izen ofizialik ez duena.

Belaitz Marzan suertatu da aste honetako irabazlea, eta berak ederto asko batalatu digu izenik gabeko kantoi hori: Berraondon Kantoia.

ZORIONAK !!

Eta besteok segi asmatzen, bila dabilenak topatu egiten du eta! Animo!!


HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

□ **Pelota**

Samaniego I.a eta II.ak 22 eta 14 irabazi zieten Agiriano eta Osari igande eguerdian Uberan jokaturako Nagusien Pelota Txapelketako finalean. Aldai eta Cesarrek, berriz, 3. postua eskuratu zuten Agirre eta Olasori 22 eta 12ko emaitzaz nagusituz.

□ **Ziklismoa**

J.A. Martinek irabazi zuen larunbatean Uberan jokaturako II. Mendi Bizikleta Txapelketa. Gaztetan Andoni Erdozia nagusitu zen, beteranoetan Jose Mari Yurrebaso eta, azkenik, emakumezkoetan, Mari Karmen Larrañagak lortu zuen garaipena. Guztira 90 bat txirrindularik hartu zuten parte.

Mikel Uribesalgo: "Nere asmoa 7 m.ko jauzi bat egitea da"

Mikel Uribesalgo 24 urteko bergarar atletak, Gipuzkoako txapelketan luzera jauzian 3. postua lortu ondoren, astebukaera lesio bategatik erretiratu behar izan zuen Anoetan jokaturako Euskadiko "indoor" txapelketan.



- **Mikel, zein da zure erronka aurtengo denboraldian?**

- Bueno, taldeka Arrasate Kirolak taldekook 4. postua dugu Euskadiko Txapelketan (Miguel Sancho bergararrak korritu zuen ere 60 m.ko proban) eta pozik gaude lortutakoarekin. Indibidualki, 7 m.ra iristea da nire lehendabiziko erronka. Gainera, 7,15

egiteak Espainiako txapelketara joateko aukera emango lidake.

- **Urrun al dago marka hori?**

- Posible ikusten dut. Nere markarik onena 6,71 m.koa da eta hemendik ekainera bitartean 7 m.ra iristea lortu dezakedala uste dut, lesioek errespetatzen banaute behintzat...

- **Kirol sufritua al da**

atletismoa?

- Ez hainbeste. Ez dakienarentzat bakarrik. Nik neure burua gero eta hobeto ezagutzen dut eta neure entrenamenduak programatzen ditut 2 urtetik hona. Egunero 2 ordu nahikoa zait.

- **Eta Bergarako atletismoaren egoera nola ikusten duzu?**


- 6 urte daramatzat atletismoan eta beti kanpoko taldeetan izan naiz, Bergaran ez dagoelako alizienterik. Arrasaten, adibidez, baldintza txarragoak dituzte entrenatzeko baina direktiba aldetik ilusio eta antolaketan gehiago.

- **Noiz arte jarraitzeko asmoa?**

- 7 m.ra salto egiten dudanean trankil erretiratu ahal izango naiz kompetiziotik. Hortik pasatzea nekez ikusten dut.

Saskibaloia jende bila

Bergara K.E.ko saskibaloia taldeak laguntza eske die bat luzatu die Bergarako saskibaloizale guztiei. Elkarteko direktiboek esan digutenez ostiraletik aurrera bono laguntzak jarriko dituzte salgai Ariznoa, Etxagi eta Oilagorra tabernetan. Bono hauekin Taugres taldearen partidu bat ikusteko lantxartel zozketatuko dira. Aurtengo denboraldian Bergara K.E.ko saskibaloiak bere eginbeharrak gehituta ikusi ditu, baina lan hauek egiteko jende falta izan dute. Azkenik eskerrak ematen dizkie aurten publizitatearekin lagundu dien guztiei.



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

Kiroldegiko Taberna

Labegaraiaeta Tfnoa: 76 56 41

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA



Ospitaleko eskola. 1926

Besoak gurutzatu eta "gizonak moduan" serio jarri ziren Sor Eufemiarekin ikasten zuten mutiko prakamotz, aurpegi-biribilak. Ez zekiten asko handik hirurogeita zazpi urtetara bergarar gehienen etxeetan izango zela argazki hau eta, gainera... baten faltan bi bider. Baina esan dezagun zeintzu diren, ez dira eta Sagarpeko bazkideak.

Ezkerretik eskumara.

Aurreko ilaran, jarrita: Ezezaguna, Manolo, Ignacio Zabala, Anton Iriarte, Martin Azkarate, Marcos Laspiur, Felipe Agirregabiria, Victor Mugica, Luis Arizmendi, Vicente Oquina, Martin Aranguren eta Jose Zabala.

Bigarren ilaran: Jose Zabaleta, ezezaguna, Alejandro Torre, Luis Sasieta, Cipriano Murua, Javier Manso, Joaquin Aranes, Genaro Suinaga, Victorio Bilbao, Jesus Larrañaga, Pedro Soria eta Luis Garmendia.

Hirugarren ilaran: Aurelio Bilbao, Jose Zabala, Miguel Narvaiza, Joseba Laborda, Pachiquin Lamariano, Agustin Zabaleta, Eustaquio Iturbe, Sebastian Muruamendiaraz, Jose Luis Zabaleta, Paulino Manso, Osinaga... eta Angel Iturbe.

Laugarren ilaran: Antonio Gonzalez, Roman Gonzalez, ezezaguna, Ion Mugica, Miguel Iriarte, Honorio Agirregabiria, Vicente Murgoitio, Sebastian Lasa, Imanol Bilbao eta Joaquin Osinaga.

Estepan Plazaola

Argazkia: Roman Gonzalezena Jesus Larrañagak utzia



ALDASORO

Orain gure beherapenak!!

Gizonezkoentzako aste berezia

Espaloia, 4 behea BERGARA ☎ 76 01 18

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Mariaren Lagundiaren parean. ☎ 76 56 13 (gauzez).

Neska bat behar da Donostian pisua konpartitzeko. ☎ 76 19-99.

Garaje bikoltza alokairuan Burdifatzen. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Arrizurlin garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

Jacan etxe bat alokatzen da. ☎ 73 07 60. Begoña. (gauzez).

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 32 70.

Garajea salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian. ☎ 12 12 71.

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisua salgai Artzamendin muebleekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez).

Peavy 100 watts bi anpil salgai. Biak 100.000 pezetatzen (bat 60.000). ☎ 76 10 34.

Garajea salgai Torrekuian. ☎ 76 16 51.

Zurraderon garajea alokatzen da. ☎ 76 23 27.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

SALDU-EROSI

Kotxea salgai. SS-P. 75.000pzta. ☎ 76 53 59.

Skiko botak erosiko nituzke. 38 zenbakikoak. ☎ 76 18 78 (Maite).

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

SS-4252-P matrikuladun Ford Scort 1.600 kotxea salgai. ☎ 76 50 18.

Skiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Ileapalndegi eta estetika aparailuak salgai. Egoera onean. ☎ 76 32 12.

Kanowey moto bat salgai (49.9 zm3). Egoera onean (90.000 pta.). ☎ 76 12 99.

Etxeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

ZANUSSI garbigailua salgai. ☎ 78 34 16.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Garbigailua oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

Lau MSX joku salgai. ☎ 76 59 47 (David).

Etxean barruko atea aldatzeko asmotan baldin bazaude ez itzazu bota, gustora hartuko ditut eta. ☎ 76 40 54 (gauzez).

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Software duen 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

Super Mario 3 jokua duen Nintendo bat salgai. ☎ 76 58 93 (Unai).

LANA

AutoCAD, FP2 Informatikan praktketan lan egingo nuke. ☎ 76 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke. ☎ 76 60 65.

Hildakoak

Petra Alberdi Villar, 16, 92 urte

Leon Aperribai Mujika,

urtarrilak 24, 71 urte

Martin Agirrezabal Larrañaga,

urtarrilak 24

Aitor Aspiazu Iturbe,

urtarrilak 25 (jaioberria)

Domingo Zenitagoia Gallastegi, 26, 85 urte

Margarita Azkarate Alberdi, 27, 92 urte

Iluminada Amurrio Rozas, 27, 80 urte

Jaiotakoak

Erik Polanco Gomez

urtarrilak 23

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

ARIZNOA

Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •



Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



ERREFORMENGATIK
% 50eko
DESKONTUAK

6 URTEKO
GARANTIA



MOTA
GUZTIETAKO
INSTALAZIOAK

Koldo Elizalde, 8 BERGARA

☎ 76 00 00